

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2011ko otsailaren 2a. VIII. urtea. 2.167. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Azoka berezia eta Zuhaitz Eguna egingo dute larunbatean Tolosan

Urteko lehen azoka berezian zuhaitzak, zuhaixkak, bonsaiak eta landareak izango dira protagonista 08:00etatik 14:00etara

XVI. Zuhaitz Egunean inoiz baino haztegi gehiagok hartuko dute parte; bonsaiak zaintzeko teknika bereziak ikasi ahalko dira, besteak beste ◯2



M. LUGARTEBENDUA

→ **Sendi Ekintza Eguna antolatuko dute Ibarra, hilaren 5ean.** Izen bereko elkarteak egun osoko jai antolatu du larunbatean. Ospakizuna haurren tailerrekin hasiko da eta txiriaren irekierarekin amaitu. Arratsaldean, kros herrikoia izango da; antolatzaileek marka gutziak haustea espero dute aurten, 300 umeren parte hartzearekin. ◯7

Martintxo baserrian elkarteak, etxebizitza sozialak eta kirola egiteko gunea doaz

San Jose egunean zabalduko dute Belauntzan herri eraikin berritua; elkarteak martxan egotea espero du Mariano Lazkano alkateordeak ◯6

Erniobea Institutua Agenda 21eko programan sartu da

Amasa-Villabonako Udalarekin hitzarmena sinatu dute eta ikasleek euren herriaren garapen jasangarrian parte hartzeko aukera izango dute ◯5

Erremonteak Garikoitz Altuna omenduko du larunbatean

Pilotari amezketarrak begi ondoan pilotakada jaso zuen orain hamahiru hilabete eta lesio horregatik kirola utzi beharrean aurkitu da ◯4



Lore, landare, zuhaixka eta zuhaitz mota desberdinak ikusi ahal izango dira larunbatean. HITZA

Larunbatean ospatuko da XVI. Zuhaitz Eguna, azoka bereziarekin

Haztegiatako landareez gain, hauek zaintzeko teknikak ere ezagutu ahal izango dira azokan

Erredakzioa Tolosa

Datorren larunbatean aurtengo lehenengo azoka berezia ospatuko dute Tolosan. Oraingo honetan zuhaitzak, zuhaixkak, bonsaiak eta landareak izango dira protagonistak, besteak beste, eta neguan gauden arren, udaberri giroa goiz osoan zehar somatuko dela diote antolatzaileek. Tolosako XVI. Zuhaitz Egun honetan inoiz baino haztegi gehiagok hartuko dute parte, eta «azokak duen oihartzun eta arrakastaren adierazle da hori». Azoka bisitatuko

dutenen artean Euskal Herri osoko nekazariak izango dira; batzuk beteranoak dira, baina haztegiatiko asko estreinakoz etorriko dira Tolosako Zuhaitz Egunera.

Goizeko zortzietan hasi, eta eguerdiko ordu biak bitarte ikusgai izango dira mota guztietako landareak. Antolatzaileek aipamen berezia egin nahi izan diete larunbatero Atadi kalean euren produktuak saltzen diren mintegiei; eurak ere azoka berezi honetan parte hartuko dute.

Ekologia eta bonsaiak ere bai
Azken urteotako edizioetan bezalaxe, azken garaietako joerak beren txokoa izango dute Zuhaitz Egunean. Alde batetik, landare eta zuhaitz ekologikoen mintegi bat izango da, Zarauzko Blasenea haztegiaren eskutik, gero eta «garrantzia handiagoa» hartzen ari

den elikadura ekologikoa azokan eskaintzeko. Bestalde, Japoniatik datorren bonsaien arteaz ere gozatu ahal izango dute bertaratuek. Zuhaitza eta landarea tamaina oso txikian hazten dira ekialdeko teknika honen bidez, eta modu desberdinak daude horretarako. Irun Bonsai lehenengoz izango da aurtengoa Zuhaitz Eguneko azokan, eta euren produktuak erakustez gain, landareak hazteko teknika berezi hau gertutik ezagutzeko parada ere eskainiko dute irundarrek, honetarako ikastaroak antolatu ohi baitituzte.

↓ Zuhaitz Eguna 2011

PARTE-HARTZAILEAK

- Agirretxe. Donostia.
- Arakama anaiak. Zegama.
- Aranburu. Aginaga.
- Areitio. Zaldibar.
- Belar. Zaldibar.
- Blasenea. Zarautz.
- Chavarri. Alfaro.
- Dorronsoro. Atauñ.
- El montañes. Tafalla.
- Guillen. Pueyo.
- Magalarte. Zamudio.
- Urkizu. Anoeta.
- Urretabizkaia. Arama.
- Victor Lasa. Albiztur.
- Irun Bonsai. Irun.
- Zubikoa. Bergara.
- Elorri. Irun.
- Txomin Bilbao. Kortezubi.

Antzinako moarratze-teknikak Leitzan

Txangoak, hitzaldiak eta kultur trukaketa izango dira egitarauaren oinarri nagusi

Erredakzioa Leizta

Ostegunean hasi eta larunbate bitarte, Trepalari Euskal Herriko Arbolazaintzaren Elkartek antolatuta, Antzinako teknikak erabiltzen dituzten Moarratzaileen Nazioarteko I. Jardunaldia ospatuko dute Leitzan.

Jardunaldiak ilargiaren zikloak errespetatuz antolatu dituzte, eta horrexegatik izango dira otsailaren 3tik 5era. Lekuari dagokionez, Leizta izango da gune nagusia, baina eguraldia dela medio zailtasunen bat sortuko baliuz, Araba eta Gipuzkoako beste leku batzuetan ekintzak burutzeko lekuak izendatu dituzte antolatzaileek.

Jardunaldien helburu nagusia antzinako moarratzaileen teknika kultura transmititzeko tres-

na izatea da. Era berean, talde desberdinak eta euren lan egiteko moldeak ezagutzera aberasgarria suertatuko zaiela diote antolatzaileek, ezaugarri beretsuak dituzten estatuko nahiz Europako eremuei dagokienez. Bigarren helburutzat honen antzeko egin-beharretako lan-arriskuak murrizteko moduak ezagutzera ematea da.

Hainbat ekintza eta hitzaldi

Talde parte-hartzaile bakoitzak bere proposamena ekarri behar du jardunaldira: bideo proiektzioak, euren ekintzen erakustaldia, ... Horretaz gain, hainbat txango eta bisita ere antolatu dituzte.

Hitzaldiei dagokionez, aizkora-ren kultura, aizkora erabiltzeko praktikak eta ebakitzeko teknikak bezalako gaiak arituko dira. Horretarako, nazioartean prestigioa duen Gabriel Saralegi, gaur egun eskuz aizkorak egiten dituen Jose Ramon Jauregi eta moarratzaileen lana gertutik azalduko duen Elosemi izango dira iraskalegoko partaide.

→ Laburrak

Bularreko minbiziari buruzko hitzaldia bihar

TOLOSA › Bularreko minbiziaren eta ginekologiako minbiziaren emakumeen Katxalin elkarteak antolatuta, eta Tolosako Udalaren Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren laguntzaz, bularreko minbiziaren garaitzeko atzematearen inguruan hitzaldia izango da bihar, otsailak 3, 17:30ean Kultur Etxean. Hizlaria Donostiako Onkologikoko Arrate Plazaola doktorea izango da.

Trafiko aldaketak, konponketak direla eta

TOLOSA › Herriko hainbat errepideen galtzadak asfaltatzen ari dira azken egunotan. Atzo, Musika Eskolaren aldameneko kalean aritu ziren obretan, eta gaur eta bihar Pintor Lekuona kalean arituko dira lanean. Ondorioz, bi kale hauek trafikotik itxita egongo dira eta bizilagunek soilik pasa ahal izango dute. Behin asfaltatze lanak amaitu eta gero, trafikoaren zentzua aldatu egingo da aipaturiko kaleetan.

Herriko hainbat zuhaitz berrituko dituzte datozen egunetan

San Frantziskon, Zumalakarregin eta Berazubini landatuko dituzte zuhaitz berriak

Erredakzioa Tolosa

Herriko lorezaintzako langileak zuhaitzak berritzen dihardute, urteroko moduan. Dagoeneko San Frantzisko pasealekuan gaitxotasun bat zela eta egoera txarrean zeuden hainbat zuhaitz kendu dituzte, eta laster landatuko dituzte berriak.

Zumalakarregi ibiltokian ere akazia batzuk egoera txarrean zeuden, eta aste honetan ari dira langileak zuhaitz horiek kentzen. Datorren astera begira, Berazubiko aldapan ekingo diote lanari, eta bertan dauden hiru lizar, bi sagarondo eta beste hamabost zuhaixka kenduko dituzte. Martxoaren 12an landatuko dituzte zuhaitz berriak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Erremonteak omenaldia egingo dio larunbatean Garikoitz Altunari

Ezkerreko begi ondoan jasotako pilotakada batek erremontea uztera behartu du kirolaria

Erredakzioa Amezketa

Garikoitz Altunak omenaldia jasoko du larunbatean, 16:00etan hasita, Hernaniko Galarreta frontoian. Erremontista amezketarrek urtebete eta hilabete darma pilotalekuek uztatu, ezkerreko begi ondoan jasotako pilotakada baten ondoren. Ia ikusmen guztia galdu du begi horretan eta profesional mailan kirolean aritzeari utzi behar izan dio.

Omenaldiaren aurkezpena egin zuten atzo Galarreta frontoian. Altuna II.az gain, ekitaldian izan ziren Francis Sistiaga Oriamendi 2010 enpresaren kudeatzailea, Jesus Iñurruta Amezketa alkatea eta larunbatean estelarri jokatu duten lau pilotariak: Koteto Ezkurra, Julien San Miguel, Patxi Zeberio elduindarra eta Miguel Mari Urrutia. Altuna II.ak omenaldia antolatzea eskertu du eta berarentzat «egun



Aurkezpenan, Altuna II.az gain, estelarreko pilotariak, Francis Sistiaga eta Jesus Iñurruta izan ziren. HITZA

oso oso polita izango da. Eskerrak eman nahi dizkiot Oriamendi enpresari omenaldia antolatzeagatik eta pilotari guztiei azken urte honetan emandako laguntza guztiaengatik».

Pilotari amezketarrek profesional mailan berriro ez du jokatuko, eta horretara pixkanaka ohitzen ari da. «Zure betiko lagunak jolasten ikusten dituzunean, inbidia pixka bat ematen dizu,

baina nagoen moduan nahiko gustura nago». Altunari gustatu lioke «beti babesa eman eta nire ondoan egon direnak» omenaldira joatea.

Autobusa Amezketatik

Amezketar ugari omenaldian izango da. Iñurririk azaldu zenez, «Altuna II.a erremontearen elitean izan da urte askotan eta amezketar guztientzat ohore bat

da herriko izena hain goian zutena». Alkateak dei egin zien herriarrei omenaldira joateko.

Amezketarren parte-hartzea errazteko, udalak autobusa dohainik jarriko du joan nahi duten guztientzat. Izena herriko tabernetan dauden zerrendetan eman behar da ostiral eguerdia baino lehen. Autobusa 14:45ean aterako da larunbatean Beartzane ondo-ko aparkalekutik.

Berria Txapelketatik kanpo geratu da Intxurre tanto kopuruengatik

Kadete eta jubeniletan irabazi zituzten partidak, baina tanto kopuruetan 49-55 galdu zuten pilotariek

Imanol Garcia

Ez du lortu Intxurre pilota elkarrekin Berria Txapelketan aurrera egitea. Alegiako Elorri frontoian jokatu duten norgehiagokan Zornotzako Lagun Onak elkarrekin aurka galdu zuten tanto kopuruengatik. Hiru partidetatik bi irabazi bazituen ere, kadete eta jubenil mailan, tanto kopuruak kontuan hartuta 49-55 galdu zuten Alegialdekoek.

Kadete mailan 22-21 irabazi zuten Larrea-Mujika bikoteak Iturbe-Rekagorri. Jubeniletan 22-12 gailendu ziren Artola-Murua Etxeberria-Mendiolarairi. Nagusien mailan Alonso-Esnaolak 5-22 galdu zuten Arrese-Zabalaren aurka.

Jose Luis Zabala Intxurreko arduradunetako batek azaldu duenez, «kadeteetan emaitza hobea izatea posible izango genuen, baina atzelaria eskuko minez zegoen». Hain justu, kadeteen partidaren amaiera emozioz bete izan zen, Intxurrekoak 17-21 galitzen joan arren, partida irabaztea lortu baitzuten.

Nagusien mailan, Zornotzakoek pilota guztiak atzera bota zituzten. Beraien atzelariak, Zabala, profesional izandakoa, ofizio handia erakutsi zuen eta ez zuten arriskurik hartu nahi izan. Hurrengo kanporaketa Amezketa Zazpi Iturriren aurka dute.

Beste txapelketak

Euskal Herriko ligan partida izango dute Intxurreko gazte mailakoek Adiskide elkartekoekin aurka etzi, ostirala, 20:00etan (bigarren partida) Alegiako Elorri frontoian. Udaberri txapelketan, leku, egun eta ordu berdinean (lehen partida) Intxurre 2k Antigua 1en aurka jokatuko du.

Mendizabalek irabazi eta Arozenak galdu, lehenengo jardunaldian

Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Saria 2011 txapelketari hasiera eman diote


Erredakzioa

Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Saria 2011ren lehen jardunaldia jokatu da asteburuan, Zumarragan. Txapelketa eskualdeko bi pilotari ari dira lehiatzen, biak atzelariak: Maider Mendizabal anoetarra eta Nagore Arozena lizartzarra. Gazi-goza izan da lehen jardunaldia, Mendizabalek irabazi eta Arozenak galdu baitzuten.

Lizartzarrek Elgezabal bikotearekin 15-30 galdu zuten Etxeleku eta Montes en aurka. Bere aldetik, Mendizabalek Caset bikotearekin 30-19 irabazi zuten Muneta eta Gracieten aurka. Bi partidetan hasieratik aurreratu ziren neurketen irabazleak.



Maider Mendizabal. HITZA



Nagore Arozena. HITZA

Hezkuntza eta heziketaren inguruan, haur liburutegian jardunaldiak

Erredakzioa Tolosa

Valentziako La Serrada elkarteak antolatzen duen hezkuntza eta heziketaren inguruko 4. nazioarteko jardunaldien egoitzetako bat Tolosa izango da. Altzoan elkarrekin ekimenez egingo dira jardunaldiak herrian, haur liburutegiaren laguntzarekin. Guztira bost saio izango dira eta ostiral honetan egingo da lehenengoa, haur liburutegian, hirugarren solairuan, 17:30etik 19:00etara.

Emanaldi bakoitzean bideo bat jarriko da eta bertan hizlari bat ariko da gai baten inguruan. Bideoa ikusi ondoren, gaiaren inguruko solasaldia izango da. Saio guztiak doan izango dira eta bideoak hitzaldiak gazteleraz daude. Ondorengo solasaldiaren hizkuntza bertara joaten den jendearen arabera izango da.

Ostiral honetako saioan Arantxa Irastozaren *Hurbilketa emozionala harreman psikomotrizitate* hitzaldia ikusi ahalgo da. Hurrengo ostiraletan ondorengo gaiak jorratuko dira: indarkeriaren sorrerak eta prebentzioa, aitaren rola, continuum-a errespetatzen duten hezkuntza sistematik, eta etsipen karakteriala.

Reina Sofia saria eman diote Edurne Pasaban mendizale tolosarrari

Erredakzioa

Edurne Pasaban tolosarrak Reina Sofia saria jaso zuen atzo. Espainiako Kirol Kontseilu Gorenak ematen duen emakumezko kirolari onenaren saria da mendizaleak jaso duena. Hamalau zortzimilakoak igotzen lehen emakumea izatea lortu zuen iaz eta horregatik lortu du 2010.eko saria.

Ez da azken egunotan Pasabane jaso duen sari bakarra. III. Euskal Kirolaren Gala ospatu berri du Euskal Kirol Federazioen Batasunak (EKFB) Gasteizko Europa Jauregian. Bertan, mendizale tolosarra 2010eko kirolari onenak izendatu zuten emakumezkoetan. Gala horretan federatutako hainbat kirolatan ere sariak eman zituzten. Hala, Leire Olaberria ikaztegiarrik txirrindularitza sailean jaso zuen.



Martintxo barrutik eta kanpotik guztiz berritu dute. M. UGARTEMENDIA

Martintxo baserria «herritarren bilgune» bilakatuko da laister

Martintxo eraikinaren baitan elkarte, etxebizitza sozialak eta kirola egiteko gunea izango dira

Maier Ugartemendia Belauntza

Hurrengo hilean zabalduko dute Belauntzako Martintxo etxea. Martxoan, herrian ospatzen duten San Jose egunerako, bertan sortuko den elkarte zabalik egotea espero du Mariano Lazkano Belauntzako alkateordeak.

Martintxo izeneko baserria orain dela urte batzuk Belauntzako Udalaren esku gelditu zen. Baserria utzia eta zaharra zegoen, baina aprobeitza zitekeen espazio handia zuen. Hori ikusirik, udalak bertan berrikuntza batzuk egin behar zirela erabaki zuen. Orain dela urte batzuk, teilatua berritu eta barrua pixka bat txukundu zieten, baina bere horretan geratu zen eta ez zuten proiektuarekin aurrera egin. 2007. urtean Mariano Lazkano alkatearen sartu zenean «herriak bildu ahal izateko leku bat eskatzen zuten», izan ere, «taberna itxita zegoela eta ez zuten biltzeko lekurik». Herriaren eskaerak entzunda, horretarako aproposa izan zitekeen lekuren baten bila hasi eta Martintxo baserria horrelako proiektu baterako leku egokia izan zitekeela pentsatu zuten. Eraikin handi bat da, eta gainera, leku



Elkartera erabiltzeko prest dago jada. M. UGARTEMENDIA

onean kokatuta dago. Honela, baserria berritzeari ekin zioten. Proiektuaren kostua «handia» zen, eta hori diputazioarekin gora behera asko izan ondoren, Landa Gipuzkoaren laguntzei esker aurrera irtetea lortu zen. Azkenean, diru laguntza «polita» lortu eta gastuen %90a laguntzei esker ordaindu ahal izango dute. Laguntza guztiak martxan jarrita, Martintxo etxeak gaur daukan itxura hartzea lortu dute.

onean kokatuta dago. Honela, baserria berritzeari ekin zioten.

Proiektuaren kostua «handia» zen, eta hori diputazioarekin gora behera asko izan ondoren, Landa Gipuzkoaren laguntzei esker aurrera irtetea lortu zen. Azkenean, diru laguntza «polita» lortu eta gastuen %90a laguntzei esker ordaindu ahal izango dute. Laguntza guztiak martxan jarrita, Martintxo etxeak gaur daukan itxura hartzea lortu dute.

Martintxo elkarte

Martintxo baserriak, hiru eremu ezberdin izango ditu: elkarte, dutsak eta gimnasioa, eta etxebizitza sozialak. Asmoa «herriaren zako, herriak erabiltzeko eta herriari nahi duenerako» proiektu bat sortzea zen, Lazkanoren hitzetan.

Alde batetik, elkarte egingo dute baserriaren lehen pisuan. Gainera, proiektuaren zati hau amaitzeko zorian dago. Elkarte martxoan irekitzeko asmoa dute, herrian ospatzen den San Jose egunerako irekitzea espero du Lazkanok. Jada osatuta eta beharrezko altzariekin hornituta dago. Sukaldea, jangela, hozkailu eta izozkailuen eremua eta komunak ditu lehen solairuak. Paisaia eta argitasun handia ere tokiarenean ezaugarri garrantzitsuak dira.

Elkartera nola antolatuta erabiltzeko bilerak egingo dira, eta jada bi eginak dituzte. 60 bazkide ingururantz lekua izango du elkarteak. Hiru epe ezberdin zabaldu dituzte bazkide izan nahi dute-

nek izena emateko. Lehen epea, herritarrei zabaldu zieten. Orain, bigarren epe bat zabaldu dute herriari jaiotakoentzat. 60 bazkide-tara iritsiko ez balira, hirugarren epe bat ere zabalduko dute herritarrek ez direnentzat, baina, Martintxo elkarte bazkide izan nahi dutenentzat. Hortaz, laster izango dute belauntzarrek elkarre berria ezagutzeko eta erabiltzeko aukera.

Etxebizitza sozialak eta kirola

Eraikinak hiru eremu izango ditu, eta bigarren solairuan egongo den eremuan herritarren beharrentzat bi etxebizitza egin dituzte. Etxebizitza hauek gizarte laguntzailearen bidez egin dituzte. «Herritarrek etxetik atera beharra, suteren bat edo familiarteko arazoren bat badute, larrialdi horiei erantzuten bat eman ahal izateko» pentsatuta daude.

Etxebizitzak altzairuz hornituak daude, eta edozein momentutan beharren bati erantzuna emateko prest daude. Bi apartamentuak sukaldea, egongela, komunak eta bikote batentzako moduko logela dituzte. Horrez gain, bi etxebizitzetako batek gela bikoitza ere badu.

Agian, bi etxebizitzetako bat errentan jarriko dute herriko gazteentzat. Honela, «gastuentzako dirua» aterako lukete eta etxeari «bizia» emango lieteke. Bestela, etxeak «hondatu» egingen baitira. Etxebizitzetako bat alokairurako erabiliko litzateke, baina, bestea edozein larrialdietan erabili ahal izateko hutsik utziko litzateke. Hala ere, oraindik gai hau zehaztu gabe dago.

Etxearen beheko solairuan, dutsak eta komunak jartzeko asmoa dute. Solairu honetan lehen etxe ukulua zegoen eta guztiz utzia zegoen. Kirola egin ondoren, norbaitek elkartera edo bazkaltzera joan nahiko balu dutsa bat hartu ondoren, zuzenean bazkaltzera joateko aukera izango luke.

Horrez gain, gimnasileku bat ere egin nahi dute herritarrek kirola egiteko aukera izan dezaten. Erraztasunak jarri nahi dituzte herritarrek kirola herrian egin dezaten, eta ez daitezkeen beste herri batzuetako kiroldegietara joan. Azkenik, biltegi bat ere izango du azken solairuak.



Sendi-Ekintza elkarteak parte hartze handia espero du elkartearen egunean. MUGARTEMENDIA

Sendi-Ekintzak hirugarrenez bere eguna ospatuko du

Larunbateko ekitaldiak umeentzako tailerrekini hasi eta urteroko txiriaren irekierarekin amaituko dira

M. Ugartemendia Ibarra

Larunbateko hirugarrenez ospatuko dute Sendi-Ekintza elkartearen eguna. Urte askoan txiriaren irekiera afari batekin ospatzen zuten arren, azken urteetan elkartearen sartu ziren guraso berriek ospakizun hori egun oso batera luzatzea erabaki zuten.

Aurreko bi urteetan eguraldi txarra izan duten arren, aurten eguraldi ona iragarri dute astebururako eta egun borobila izatea espero dute elkarteko kideek. Goizean lehengo urtean arrakasta handia izan zuen xaboi burbulak egiteko aukera izango dute haurrek. Horrez gain, parkeko

horma margotuz tailer bat ere egingo dute. Ondoren, haur jolasak izango dira plazan. Arratsaldean, 15:30ean eskoba txapelketa jokatu dute. Izena egunean bertan edo elkartearen dauden zerrendetan eman daiteke. Izena emateko 5 euro ordaindu beharko dira eta lehenengo hiru postuek sariak izango dituzte.

16:00etan kros herrikoari hasiera emango diete. Aurten marka guztiak hautsiz 300 ume inguruk parte hartzea espero dute. Lehenengo urtean 90 ume hartu zuten parte eta bigarrenean 150ek. Beraz, krosak urtetik urtera arrakasta handiagoa duela ikus daiteke.

Bukatutakoan urtero bezala txokolatada eta sari banaketa izango dituzte parte hartzaileek.

Jarraian txiriaren irekiera egingo dute, bertsolariak eta musikariak lagunduta. Edanari laguntzeko elkarteko kideek mokatua prestatuko dute.

Lokal berria

Jada 340 bazkide ditu Sendi-Ekintza elkarteak eta hau ikusirik lokal berri bat hartu dute. Hala ere, orain arte erabilitako txokoa bileretarako mantenduko dute.

Proiektua aurrera begira osatzen joango dira, izan ere, orain lokal eskuratu duten arren, hau hornitzea denbora luzerako lana izango da.

↓ EGITARAUA

- **11:00.** Eskulan tailerrak haurrentzat, xaboi burubuilak eta tailer mota ugari.
- **12:15.** Haur jolasak.
- **15:30.** Eskoba txapelketa.
- **16:00.** Kros herrikoia.
- **17:30.** Txokolatada. Ondoren, sari banaketa.
- **18:30.** Sagardoaren txiriaren irekiera. Luntxa, bertsolariak eta musika.

Fernandez eta Martinez bigarren postuan

Mapfre ontzia bigarren postuan dago; 24 ordutan 23 milia gutxiagoko tartea dute lehenengo ontziarekiko

Erredakzioa Ibarra

Fernandez eta Martinez oso markak onak lortzen ari dira Barcelona Word Racen. Lehenengo postutik 551 miliatara daude, eta hirugarren ontziari 142 miliatara dute. Atzo, lehen postuko Virbac Paprec ontzi frantsesak iparkialdera joan behar izan zuten,

nahitaezko ibilbidetik pasatzeko. Horren ondorioz, beraien abiadura euskaldunena baino mantsoagoa izan zuten. Gauzak honela, Mapfre ontzia posizio hobekoan kokatu zen atzo, hurrengo gunera iritsi ahal izateko.

Hurrengo oztupoa Madagaskar irlaren hegoaldean dagoen ekaitza izango dute Mapfre ontziok, izan ere, 40 korapilotako abiadura izango du haizeak bertan. Virbac Paprec ontzia ekaitzera gerturatu ari zen atzo, eta atzetik doazen ontziak ere ziurrenik ekaitzaren ondorioak jasan beharko dituzte. Hirugarren eta laugarren ontziak lehia estua dute, 5,4 milia-kota tartearrekin.

Diru laguntzak boluntarioen sarerako

Nafarroako Gobernuak 390.000 euroko diru laguntzak emango ditu boluntarioen sarea mantentzeko

Erredakzioa Leizta

Udalak Nafarroako Gobernuaren diru laguntza zuzena jasoko du, 2011. urtean suhiltzaileen eta babes zibileko agenteen esku hartzeak ordaindu ahal izateko. Dirulaguntza hori Nafarroako Gobernuak Leitzako Udalarekin eta

Nafarroako beste bederatzi udalakin lankidetzara beste lau urterako berritzearekin lotuta dago. Suhiltzaileen talde horiek eta babes zibileko agenteek atxikita dituzten udalakin sinatutako hitzarmenen bidez, Nafarroako Gobernuak pertsonen eta ondasunen babes zibilaren maila handitzea eta suteen, istripuen eta larrialdi egoerarako gainaroko jardunen prebentzioa sustatu nahi da suhiltzaileen parke profesionaletatik urrun dauden udalerrietan. Hitzarmen honekin boluntarioen egitura egonkorra bermatu nahi da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horietan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazatzea izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



90°
70°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	EURIA
BEROENA	10°
HOTZENA	7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

DEIALDIAK

- **Villabona.** Gaur 19:00etan Mintzola etxean Euskal Herrian Euskaraz elkartearen ibilbidearen inguruko dokumentala eta solasaldia.
- **Tolosa.** Laskorain ikastolak matrikula kanpainaren baitan informazio saioa egingo du gaur 18:00etan.
- **Tolosa.** Hirukide ikastetxeko DBHri buruzko bilera gaur 18:00etan.
- **Ibarra.** Agate Deunaren bezperan abesten ateratzeko entseguak gaur eta bihar 20:00etan Alurr-en bulegoan.
- **Villabona.** Eresargi abesbatzak Agate Deunaren bezperan kantuan ateratzeko entseguak egingo du gaur 19:30ean kultur etxean.
- **Anoeta.** Ritxi Lizartzak hitano ikastaroa eskainiko du otsailetik apiril bitarte. Ikastaroa doan izango da, baina materialak 30 euro balio du. Izena emateko epea gaur amaituko da eta udal etxean egin daitezke Euskara Zerbitzura azalduz edo 943 65 12 00 telefonora deituz.

JAIK

- **Tolosa.** San Blas auzoko jaiak: 18:00etan txupinazoa eta 18:30etik 21:30era Disko Festa.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia **Leitza**



HONDAKIN ELEKTRIKOEN KALTEAK

Hondakin elektriko eta elektronikoen kudeaketaren garrantziaz ohartzeko erakusketa egon da azken hiru egunetan herriko plazan. Atzo izan zen hau ikusteko azken eguna eta erakusketa ibiltariaren helburua herritarrek aipatu gaiaren inguruan sentsibilizatzea izan da. Erakusketa daraman autobusa Mendialdea Mankomunitateko

herrietan barrena dabil eta Leitza eta gero Lekunberrira joango da. Mankomunitateak agertu duenez, TEEH bezala ezagutuak baita ere, hondakin elektriko eta elektronikoak, ongi tratatzen ez baditugu, tresnok dauzkaten kutsagarriak arriskuan jarriko dute ingurumena, bai eta jendearen osasuna ere. M. UGARTEMENDIA

Agurrak

agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udal etxeko bulegoa

agurrak



sarrerak

HITZAK harpidedun batentzat **sarrera pare** du

LAGUN ARO GBC
Menorca Basquet
saskibalo partida

Otsailak 6 • Igandea
12:30ean
Donostiako Ilunben



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira